

ERREENTERIA ETA ORERETA IZENEZ

Erreenteria eta *Orereta* izenak hizpide izan dira azken hilabeteetan. Bazuengan ezbai eta zalantza sortu da agian. Aipatu behar da, oroz gain. Luis Elberdin jaunaren artikulua, herriko jaietan agerturiko *Oarso* aldizkarian, halaber jaun beraren liburua, *Orereta izena* eta *izana*, Mikel Hoyos jaunak euskaraz jarria. Honen guztiaren aurrean beharrezko dirudi berriro ere Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak bere hitza adieraztea, labur bada ere.

1. Ez gara arituko hemen, ez baita gure eginkizuna, Elberdin jaunaren ideologia ikuspegiez eta filologia ezagupenez. Hauxe bakarrik esango dugu: nabarmena dela lan horietan, agirien bilketa eskertzekoa izanik ere, gertaera historikoak eta linguistikoak ez direla beren osotasunean hartu. Besteak beste, ezin dira eraman XIV. mendera askoz gerokoak diren politika jarrerak. Ezin da esan, halaber, lekuizen batzuen euskal akdaerak, *Erreenteria* bera, haien artean, XVIII. mendean hasi zirela erabiltzen, edota Euskal Herriko hiriek euskal toponimia zutela jatorriz. Azterketak agerian uzten du Euskal Herriko hizkuntz egoera oso ñabarra dela mendeetan zehar. Euskara nagusi da lurraldez, agerian denez, baina gure herrien izenez hizkuntza batzuen aztarna erakusten dute, mailguak —zaharrak eta berriagoak—, tradizio bikoitzeko lekuizenak (euskal-erromanikoak), e.a., guztiz ugari direlarik.

2. Horrelako iritziak eta aurreiritziak alde batera uzten baditugu, garbi esan behar da, berriz ere, *Erreenteria* euskal hitza dela. Mailegua da, hots, beste hizkuntza batetik hartua da, gure hizkuntzaren ehunka hitzak eta izen bereziak —giza nahiz lekuizenak— bezala. Bestalde, seguru aski (*er*)*reenteria* gaztelaniatik dator. Hala ere, hitza ez omen da erabili gaztelania orokorrean, eta bai Euskal Herrian bakarrik. Aipa dezakegu, adibide gisa, *Ensayo de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País* liburua (Gasteiz, 1768), non “lonjas y reenterías de Vizcaya y Guipúzcoa” esaten baita (17. orr.). Hitza ez da ageri gaztelaniazko hiztegiatan, ezta Erdal Akademiarenean ere. Bazetorren, bai, 1737ko argitaraldian: ordea, oso esanahi diferentearekin. Baina, gaztelaniatik etorri arren, horregatik ote da baztertzekoa?

Aldiz, normala denez, euskal hiztegi gehien-gehienetan ikusten da hitza, Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* deritzanetik (1905) berriagoetaraino. Literatura lekukotasunen artean, aipagarria da Mogelek erabiltzen duela, *Peru Abarka* eleberrian, ezaguna den esanahian, hau da, “barne aduana”. Gogoraziko dugu, berebat, axola baitu, Euskal Herrian bakarrik erabilia izan dela giza eta lekuizen bezala. Gauza jakina da horrela deitzen direla zenbait

leku: honetaz gain, Orion, Deban, Ondarroan, Gernikan, Plentzian eta Bilbon. Hau ere gehituko dugu: *Rentería* deitura, gaztelaniazko grafia honekin, XV. mendez gero, behintzat, aurkitzen dela, forma soilean edo konposatuan (v.g., *Ibañez de la Rentería*).

3. Gauza hauek nahita edo nahigabe ahaztea baino larriagoa da Euskaltzaindiaren esanei ez lotzea. Elberdin jaunak, izan ere, honako hau idatzi du hitzez hitz: “1994-05-20an Euskaltzaindiak *Orereta* izena eta *oreretar*, aurrekoaren aldakia ofizialki onartu eta *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n sartzeko erabakia hartu zuen”. Hau ez da egia. Euskaltzaindiak egun horretan Alfonso Irigoyen euskaltzain oso, Onomastika batzordekide eta Deustuko Unibertsitateko katedradunaren txostenari onikusia eman zion. Txosten horretan esaten da *Orereta* izen historiko bat dela, oraingo udalerrriaren erdian dagoen lekuari dagokiona. Bestalde, Akademiaren egitekoa ez da inondik ere izenak ofizialtzea. Hori herri aginteei datzeko. Euskaltzaindiak irizpenak egiten ditu, eta hau oso bestelako gauza da, jakina.

4. Gainerakoan, ezaguna da Euskaltzaindiak, *Orereta* izenaren aldekoek txosten horri emandako interpretazioaren aurrean, prentsako ohar bat argitaratu behar izan zuela, 1994ko ekainaren 21ean.

5. Jakina denez, *Orereta* izena ugari erabili da, mende honen hasieratik, batez ere, *Erreneria*-ren ordain. Baina erabilera hori, zenbait alorretara mugatua, garai hartako garbizalekeriarekin eta hemen aipatzen diren gertaerak ez ezagutzearekin dago lotua, neurri handi batean.

6. Deitoragarri deritzagu orobat euskalari gailen batzuen izenaz eta irudiaz baliatzeari, gai honetan, haien iritziak gaizki erabilirik. Koldo Mitxelena euskaltzainaren irudiaz baliatzea, izkribuetan (aipatzen dugun liburuan, besteak beste) bai eta kale agerpenetan, gaitzesten dugu bereziki. 1980ko maiatzaren 28an, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak, Mitxelena jauna batzordeburu zelarik, *Erreneria* izenari buruzko irizpena onartu zuen, aho batez onartu ere, izenaren egokitasuna eta zuzentasuna berretsiz, eta Mitxelenak iritzi berbera azaldu zuen zenbait alditan, ahoz eta idatziz, jakina den bezala. Ikus daiteke, adibidez, *Euskera* agerkaria, XXXI:2, 1986, 537. orr., Juan San Martin euskaltzainkidearen artikulua baten gainean ari zela (*Egan*, XLVI:3-4, 1985, 187-189 orr.).

* * *

Euskaltzaindiaren osoko batzarrean, Bilbon, 1995eko urriaren 27an, aho batez onaturiko testua.

* * *

SOBRE ERRETERIA Y ORERETA

En los últimos meses se han producido diversas declaraciones acerca del nombre de esta villa, que han podido originar duda y confusión en algunas personas. Hay que mencionar especialmente el artículo de Luis Elberdin en la revista *Oarso*, publicada con motivo de las fiestas patronales, y el libro del mismo autor, *Orereta izena eta izana*, con traducción de Mikel Hoyos. Ante todo ello, parece necesario que la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia salga al paso con algunas puntualizaciones.

1. No vamos a extendernos, puesto que no es nuestro cometido, sobre las consideraciones ideológicas y los conocimientos filológicos del señor Elberdin. Sólo diremos que, junto a la abundante documentación aportada, son claras en los trabajos citados la simplificación y la interpretación parcial de los hechos históricos y lingüísticos. Entre otras cosas, llama la atención el traslado al siglo XIV de concepciones sociales y políticas muy posteriores. Tampoco pueden suscribirse otras afirmaciones, por ejemplo, que formas vascas, entre ellas la propia *Erreterria*, comenzaron a usarse en el siglo XVIII, o que “las poblaciones de Euskal Herria tenían originariamente una toponimia autóctona euskaldun”. Tomando el conjunto de Vasconia, es evidente una situación lingüística muy compleja a lo largo de los siglos. El predominio territorial del euskara es patente, pero los nombres de nuestros pueblos reflejan la impronta de varias lenguas, con numerosísimos casos de préstamos, de mayor o menor antigüedad, toponimia de doble tradición vasco-románica, etc.

2. Dejando a un lado tales juicios y prejuicios, hay que repetir con toda claridad que *Erreterria* es una palabra vasca. Es una voz de préstamo, o sea, tomada por el euskara de otra lengua, lo mismo que cientos y cientos de voces del léxico común y de nombres propios, tanto de lugar como de persona. Es muy probable que (*er*)*reterria* sea de origen castellano. Sin embargo, la palabra no parece haya sido empleada en el castellano general, y sólo en Vasconia. Podemos citar, por ejemplo, el *Ensayo de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País* (Vitoria, 1768), donde se habla de las “lonjas y reterías de Vizcaya y Guipúzcoa” (p. 17). La voz no consta en los diccionarios castellanos, y desde luego tampoco en el de la Real Academia Española; figuraba en la edición de 1737, pero con un significado muy diferente. Pero aunque la palabra sea de origen castellano, ¿acaso por ello es rechazable?

En cambio, como era de esperar, *erreterria* figura en la inmensa mayoría de los diccionarios vascos, desde el *Diccionario vasco-español-francés*, de Rensurrección M.^o de Azkue (1905), hasta los más recientes. Entre los testimonios literarios de la palabra puede citarse el del autor clásico Mogel, quien en la novela *Peru Abarka* emplea *erreterria* en el sentido conocido, es decir, “aduana” o “fielato”. Importa también recordar que como nombre de lugar y como

apellido solamente se usa en el País Vasco. Cabe señalar al respecto, aunque es de sobra conocido, que hay en Euskal Herria varios lugares con este nombre, pudiendo mencionarse, además del nombre que nos ocupa, los existentes en Orío, Deba, Ondarroa, Gernika, Plentzia y Bilbao. Añadiremos que el apellido *Rentería*, con esta grafía castellana, se documenta al menos desde el siglo XV, tanto en su forma simple como compuesta (v.g. *Ibañez de la Rentería*).

3. Tan grave o más que el olvido, voluntario o no, de estos hechos, es el haber manipulado lo dicho por Euskaltzaindia. En efecto, el Sr. Elberdin escribe literalmente: "Es en esta reunión del 20-05-1994 cuando Euskaltzaindia definitivamente toma el acuerdo de aceptar oficialmente el nombre de *Orereta* como nombre de la población y su derivado *oreretar* para sus vecinos". Esto es faltar a la verdad. Lo que en ese día hizo Euskaltzaindia fue proceder a dar el visto bueno al Informe de Alfonso Irigoyen, académico de número y miembro de la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia y catedrático de la Universidad de Deusto. En dicho Informe se dice que *Orereta* es un nombre histórico del lugar enclavado en el centro de la villa actual. Por otra parte, en modo alguno corresponde a Euskaltzaindia oficializar nombres, asunto que compete a los poderes públicos. La Academia dictamina, cosa muy distinta, desde luego.

4. Por lo demás, es sabido que Euskaltzaindia, ante la interpretación sesgada e interesada que los promotores de *Orereta* como nombre de la villa habían hecho del referido Informe, se vio en la obligación de publicar una nota de prensa sobre este asunto, con fecha 21 de junio de 1994.

5. Es conocido el empleo abundante del nombre *Orereta*, sobre todo desde principios de este siglo, para designar la villa. Pero ese empleo, limitado más bien a determinados sectores, tiene mucho que ver con las concepciones puristas de la época y con el desconocimiento de los hechos aquí expuestos.

6. Terminaremos indicando que nos parece asimismo censurable utilizar en este asunto el nombre y la imagen de destacados vascólogos, tergiversando sus opiniones. En especial, hemos de condenar la utilización de la figura del académico Koldo Mitxelena, en escritos (entre ellos el libro citado) y aún en exposiciones callejeras. Con fecha 28 de mayo de 1980, la comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, comisión presidida por Mitxelena, aprobó, y lo hizo por unanimidad, el Dictamen sobre *Errenteria*, ratificando la idoneidad y corrección de este nombre, y el propio Mitxelena volvió sobre ello en varias ocasiones, oralmente y por escrito, como es bien sabido y como puede verse, por ejemplo, en la revista *Euskera*, XXXI:2, 1986, p. 537, haciéndose eco de un artículo del también académico Juan San Martín (*Egan*, XLVI:3-4, 1985, pp. 187-189).

* * *

Texto aprobado por unanimidad en la sesión mensual ordinaria celebrada en Bilbao el 27 de octubre de 1995.